# Bestelako Xedapenak

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

**2125**

AGINDUA, 2010eko martxoaren 29koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena; honen bidez, DigiPen Institute of Technology Europe-Bilbao SL izeneko ikastegia ireki eta abian jartzeko baimena ematen da, beste herrialde batzuetan indarrean diren hezkuntza-sistemen araberako unibertsitate-mailako ikasketak –Espainiako tituluekin homologatzeko modukoak ez direnak– emateko.

DigiPen Institute of Technology Europe-Bilbao SL izeneko ikastegiak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari baimena eskatu dio Bachelor of Science in Real Time Interactive Simulation eta Bachelor of Fine Arts in Production Animation tituluak lortzeko ikasketak emateko. Titulazio bi horiek DigiPen Institute of Technology-koak dira, hots, Redmond-en (Washington) egoitza duen teknologia-institutu pribatukoak.

Irailaren 21eko 330/1999 Dekretuaren bitartez arautzen dira beste herrialde batzuetan indarrean diren hezkuntza-sistemen araberako unibertsitate-mailako ikasketak (Espainiakoekin homologagarri diren tituluak ematen ez dituztenak) eskaintzen dituzten ikastegiak ireki eta abian jartzeko baimenaren betekizunak eta prozedura; dekretu horren 3. artikuluan, baimen hori emateko betekizunak ezartzen dira, eta betekizun horiek betetzen direla egiaztatzeko agiriak zeintzuk diren zehazten; 4. artikuluan, ikastetxe horri era horretako ikasketak eskaintzeko gaitasuna ematen dion hitzarmen edo agiri juridikoak zer eduki behar duen zehazten da.

Espediente hori aztertu dugu eta hau ikusi dugu: eskatutako baimena eskuratzeko betekizunak betetzen dituela ikastetxe horrek, dekretu horretako 3. eta 4. artikuluetan ezarritakoa betetzen baitu.

Halaber, eta 330/1999 Dekretu horren 2. artikuluan araututakoa betetzeko, 2010eko otsailaren 17an, Kanpo Arazoetako eta Lankidetzarako Ministerioak jakinarazten duenez, Espainiako Erreinuko eta Ameriketako Estatu Batuen artean hezkuntza-lankidetzako gaietarako indarrean den hitzarmena aztertuta, ez du eragozpenik ikusten baimen hori emateko.

Unibertsitateen abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 86. artikuluan ezarritakoa eta hura aldatzen duen apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organiko-

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**2125**

ORDEN de 29 de marzo de 2010, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se autoriza el establecimiento y funcionamiento del Centro denominado DigiPen Institute of Technology Europe-Bilbao, S.L., para impartir las enseñanzas de nivel universitario conforme a sistemas educativos vigentes en otros países, no conducentes a la obtención de títulos homologables a los españoles.

El centro denominado DigiPen Institute of Technology Europe-Bilbao, S.L., solicita al Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco, autorización para la impartición de las enseñanzas conducentes a la obtención de los títulos de Bachelor of Science in Real Time Interactive Simulation y Bachelor of Fine Arts in Production Animation, ambas titulaciones de DigiPen Institute of Technology, Instituto tecnológico privado con sede en Redmond, estado de Washington.

El Decreto 330/1999, de 21 de septiembre, por el que se regula el procedimiento y las condiciones de autorización para el establecimiento y el funcionamiento de centros que impartan enseñanzas de nivel universitario conforme a sistemas educativos vigentes en otros países, no conducentes a la obtención de títulos homologables a los españoles, establece en su artículo 3 los requisitos para la autorización y la documentación acreditativa de su cumplimiento, al tiempo que el artículo 4 señala los contenidos que habrá de presentar el convenio o título jurídico que acredita al centro para impartir enseñanzas de nivel universitario conforme a sistemas educativos vigentes en otros países.

Examinado dicho expediente, se observa que dicho Centro acredita los requisitos para la autorización que solicita, al cumplir las previsiones de los artículos 3 y 4 del citado Decreto.

Asimismo y en cumplimiento de lo regulado en el artículo 2 del citado Decreto 330/1999, con fecha 17 de febrero de 2010 el Ministerio de Asuntos Exteriores y de la Cooperación informa que examinado el vigente Acuerdo entre el Reino de España y los Estados Unidos de América en materia de Cooperación Educativa, Cultural y Científica, no se aprecia inconveniente en que se proceda a dicha autorización.

De acuerdo con lo establecido en el arto 86 de la Ley Orgánica 6/2001, de 21 de diciembre, de Universidades, y en la disposición adicional quinta de la

aren bosgarren xedapen gehigarria kontuan hartuta, Uniqual-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziak (2009ko abenduaren 9an) eta Unibertsitate Kontseiluak (2010eko otsailaren 22an egindako bilkuran) nahitaezko txostenak eman zituzten.

Ondorioz, Uniqual-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziak eta Unibertsitateen Kontseiluak aldeko txostenak emanda, eta kontuan hartuta irailaren 21eko 330/1999 Dekretuaren 2.4 artikuluak jasotzen duenari jarraituz Unibertsitate Zuzendaritzak egindako azalpen-txostena, hau

EBATZI DUT:

***Lehenengoa***.– Baimena ematea DigiPen Institute of Technology Europe-Bilbao SL izeneko ikastegia ireki eta abian jartzeko, Bachelor of Science in Real Time Interactive Simulation eta Bachelor of Fine Arts in Production Animation tituluak lortzeko ikasketak emateko, 2010-2011 ikasturtetik aurrera. Titulu horiek biak DigiPen Institute of Technology-renak dira, hots, Redmonden (Washington) egoitza duen teknologia-institutu pribatuarenak.

***Bigarrena***.– Ikastegi hori ireki eta abian jartzeko baimena emateak ez dakar eskubiderik bertan eskaintzen diren ikasketak Espainian besterik gabe homologatzeko; goi-mailako atzerriko tituluak homologatzearen inguruko araudi orokorrak xedatzen duenaren menpe egongo da homologazio hori.

***Hirugarrena***.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

***Laugarrena***.– Agindu honen kontra, interesdunek aukerako berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango diote Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, agindua jakinarazi eta biharamunean hasita hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute dagokion Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera bi hilabeteko epearen barruan.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko martxoaren 29a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

Ley Orgánica 4/2007, de 12 de abril, por la que se modifica aquélla, tanto Uniqual / Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco, con fecha 9 de diciembre de 2009, como el Consejo de Universidades, en su sesión del día 22 de febrero de 2010, emiten sus informes preceptivos.

En consecuencia, emitidos los informes preceptivos por parte de Uniqual / Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco y del Consejo de Universidades y de, y atendido al informe razonado de la Dirección de Universidades conforme a lo previsto en el artículo 2.4 del Decreto 330/1999, de 21 de septiembre,

RESUELVO:

***Primero***.– Autorizar el establecimiento y funcionamiento del Centro denominado DigiPen Institute of Technology Europe-Bilbao, S.L., para impartir las enseñanzas conducentes a la obtención de los títulos de Bachelor of Science in Real Time Interactive Simulation y Bachelor of Fine Arts in Production Animation, ambas titulaciones de DigiPen Institute of Technology, Instituto tecnológico privado con sede en Redmond, estado de Washington, con efectos académicos desde el curso 2010-2011.

***Segundo***.– La autorización para el establecimiento y funcionamiento de dicho Centro no conlleva el derecho a homologación automática en España de los estudios que se impartan en el mismo, homologación que queda sometida a lo dispuesto en la normativa general sobre homologación de títulos extranjeros de educación superior.

***Tercero***.– La presente Orden entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

***Cuarto***.– Contra la presente Orden podrán interponer los interesados recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación, o bien recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

En Vitoria-Gasteiz, a 29 de marzo de 2010.

La Consejera de Educación, Universidades e Investigación,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.